



Arartekoaren 2019R-2716-17 Ebazpena, 2019ko maiatzaren 21ekoa. Horren bitartez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politika Sailari gomendatzen zaio berriz azter ditzala herritar bati diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria eten dizkion ebazpena eta jasotako prestazioak itzultzeko betebeharra ezarri diona, betebeharrak guztiak bete dituelako.

Aurrekariak

1. XXek kexa bat aurkeztu du Arartekoan, eta, horren bidez, erakunde honen esku-hartzea eskatu du, etxebizitzarako prestazio osagarri gisa bidegabe ordaindu zizkion prestazioak erreklamatu dizkioteko, eta gizarte-kuota ukatu egin diotelako.

2017ko apirilaren 21eko ebazpen bidez, Lanbidek adierazi zuen pertsona horrek 1.750 euro itzuli behar zituela, prestazioak bidegabe jaso zituelako. Honako hau zen ebazpenean ageri zen arrazoa:

“Imposibilidad de determinar el gasto de PCV desde septiembre 2016 por empadronar a una persona en el domicilio sin comunicar y no poder determinar con exactitud las personas que residían con contratos de subarriendos y el importe del ingreso correspondiente a los mismos”.

2017ko maiatzaren 16an, aukerako berraztertze errekurtsoa jarri zuen kexagileak, baina ebazpen hau eman den momentuan esan duenez, oraindik ez da ebatzi errekurtso hori.

Lanbidek 268 euro deskontatzen zizkion, hilean, zor hori ordaintzeko, eta, hortaz, eskatu zuen zenbateko txikiagoa kentzeko zor hori ordaintzeko.

2017ko urriaren 24an, Lanbidek ukatu egin zion hilean 135 euroko kuota finkoa ezartzeko eskaera, honako arrazoi hauek zirela tarteko:

“1- DBE lortzeko eta mantentzeko helburuarekin titularrak egindako jokaerengatik sortu izana zorra, beti ere, jakinda horretarako baldintzak betetzen ez zituela.

2- Hurrengo egoera hauetakoren bat ez da gertatzen:

- *Bizikidetz-unitatea 3 kide baino gehiagok osatzea.*
- *Mailegu personal edo hipoteka-mailegu bat izatea eta horren hileko kuota DBEgatik gehienez ere eskuratuko luketenaren zenbatekoaren 5 30ekoa edo handiagoa izatea (betiere inolako baliabiderik ez dagoen kasuan eta bizikidetz-unitatean zenbat kide diren kontuan izanik).*





- *Enbargo bat izatea eta horren hileko zenbatekoa DBEgatik gehienez ere eskuratuko luketenaren zenbatekoaren %30ekoa edo handiagoa izatea (betiere inolako baliabiderik ez dagoen kasuan eta bizikidetzaren unitatean zenbat kide diren kontuan izanik)."*
2. Arartekoak izapidetzeko onartu zuen kexa, eta, horren ondoren, azaldutako egitateen berri emateko eskatu zion Lanbideri, eta alde aurretiko zenbait gogoeta helarazi zizkion —jarraian jasoko ditugu, ez errepikatzearren—. Zehazki, kontu hauei buruzko informazioa eskatu zion:
- a) Zergatik erabaki duzuen etxebizitzarako prestazio osagarri gisa jasotako zenbatekoak erreklamatzeko.
 - b) Zer lege oinarri hartu dituzuen kontuan ondorioztatzeke interesdunak ez dituela bete etxebizitzarako prestazio osagarriaren titularrei dagozkien baldintzak.
 - c) Lehenago zehapen prozedurarik edo prestazioak eteteko prozedurarik izapidetu ote den.
 - d) Zergatik ukatu dion Lanbidek pertsona horri zorra itzul dezan hileroko deskontu txikiagoa ezartzeko aukera.
 - e) Kexagileari behar bezala erantzuteko egindako edo egin beharreko jardunei buruzko azalpena.
3. Lanbidek erakunde horretako zuzendari nagusiaren txostenaren bitartez erantzun dio Arartekoari. Hauxe dio txostenak: *"prestazioaren titularrak entzunaldi-izapidean aurkeztu duen idatzian aitortzen du azpierrentan dagoen pertsona eta haren bikotekidea logeletako batean erroldatuta zeudela, eta ez du une batean ere jakinarazi"*.

Txosten horretan, taula bat ageri zen, zeinetan adierazi baitzen noiz eman zuten alta eta baja etxebizitza horretan bai interesdunak eta bai berak zekiela han izena emanda egon ziren pertsonak. Datu horien arabera, kexagilea, XX, 2015eko abuztuaren 11tik egon zen erroldatuta, eta ZZ, berriz, 2016ko apirilaren 19tik 2017ko irailaren 28ra.

Horrez gain, izapide hauen berri ematen zuen txostenak:

- *2017/03/17an, entzunaldi-izapidea jakinarazi zitzaion bere etxebizitzan hainbat pertsonen errolda justifika zezan.*
- *2017/05/05ean, prestazio kendu zitzaion, pertsona baten errolda ez jakinarazteagatik.*
- *2017/06/22an, entzunaldi-izapidea jakinarazi zitzaion, beste pertsonekin egin dituen azpierrentamendu-kontratuak argitu zitzaion.*





- 2017/07/27an, logelaren 3 hilabeterako azpierrentamendu-kontratua aurkeztu zuen, YYren eta AAren izenean, hilean 250 €-ko errentarekin.
- 2017/10/13an, oker kobratzeari buruzko ebazpena jakinarazi zitzaion, 1.750 eurori zegokiona.
- 2017/10/24an, 2017/REI/018521 2013/RGI/017413 itzulketa-espedienteari loturik, konpentsazioa eskatu zuen, hilean 135 euroko kuota finkoarekin.”

Amaitzeko, Lanbidek adierazi zuen, interesdunak betebeharrerako bat bete ez zuenez, % 30eko kuota itzuli behar zuela; beraz, erakunde horrek ez zuen onartu interesdunak eskatutako deskontua.

4. Jasotako informazioa ikusita, Arartekoak kexagileari eskatu zion egokiak iruditzen zitzaizkion alegazioak aurkez zitzala. Kexagileak erakunde honi jakinarazi zion une oro alegatu zuela, espedientean, ez zekiela ZZk, zeinek logela bat hartua baitzuen azpierrentan, beste pertsona bat erroldatzeko eskatu zuenik. Alegazio-izapideari erantzunez, erakunde honi adierazi dio arazoak eragin dituen erroldako izen-ematea logeletako bat azpierrentan hartua zuen pertsona batek eskatu zuela, berari jakinarazi eta kontsultatu gabe, eta baimenik eskatu gabe ez berari, ez eta etxebizitzaren jabeari ere.

Kexagileak 2017ko maiatzaren 8an aurkeztutako eskaerei (erregistro-zenbakiak: 2017439400 eta 2017439408) Gasteizko Udalak emandako erantzuna erantsi du kexagileak. Horren arabera, ZZk eskatu zuen, 2016ko irailaren 5ean, beste pertsona bat erroldatzeko.

Horrekin batera, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2018ko ekainaren 26ko ebazpena ere bidali du; haren bidez, 2017ko apirilaren 21eko Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpenaren kontra aurkeztutako errekurtsioa ezetsi zen.

Horren aurretik, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako prestazio osagarria eten zizkion interesdunari, arrazoi hau zela eta:

“No comunicar, en el plazo máximo de quince días naturales contados a partir del momento en el que se produzcan, los hechos sobrevenidos que pudieran dar lugar a la modificación, suspensión o extinción del derecho a la prestación: NO COMUNICA EMPADRONAMIENTO DE VV”.

Aurreko ebazpenaren kontra, aukerako berraztertze errekurtsioa aurkeztu zen, baina ezetsi egin zen, ez zelako bete diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzko Dekretuaren (147/2010, maiatzaren 25ekoa) 12.1f.1) artikulua diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrei ezartzen dien betebeharra, alegia, bizikidetzaren unitatearen osan eragina duten gertakariak jakinaraztea,





gehienez ere hamabost egun naturaleko epean horiek jazotzen direnetik aurrera.

Gogoetak

1. Arartekoak aztertutako zenbait kexa-espeditetan¹ gertatu izan da diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrarengan ondoreak izatea beren bizikidetz-unitatekoak ez ziren pertsonen jarduketek. Espediente honetan jazotakoari lotuta, gogorarazi nahi dugu diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrak betebeharren bat bete ez duen zantzua izan daitekeela egitate baten berri izanik —hala nola, jakinik pertsona bat etxebizitzan erroldatuta dagoela— hura Lanbideren bulegoan jakinarazi ez izana, eta horrek probaldia abiaraztea justifikatzen duela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen (39/2015, urriaren 1ekoa) 77. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularraren etxebizitzan pertsona bat erroldatuta egotea interesgarria da, diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularraren betebeharretako bat delako —Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko Dekretuaren (147/2010, maiatzaren 25ekoa) 12.1f.1) artikulua— prestaziorako eskubidea aldatzea, etetea edo iraungitzea ekar dezaketen eta ondoren adierazten diren gertakarien berri ematea (besteak beste bizikidetz-unitatearen osieran eragina duten gertakariak), horiek sortzen diren unetik aurrera zenbatzen hasi eta gehieneko hamabost eguneko epean.

Hala ere, hori jakinarazteak ez **dakar, berez, diru-sarrerak bermatzeko errentaren/etxebizitzarako prestazio osagarriaren titularrak betebeharrak bat bete ez izana.**

Arartekoaren iritziz, espedientea berrikusten ari denean ikertu eta egiaztatu behar da zergatik ez duen jakinarazi diru-sarrerak bermatzeko errentaren/etxebizitzarako prestazio osagarriaren titularrak beste pertsona bat etxebizitzan erroldatuta dagoela.

Halaber, Arartekoaren ustez, Lanbideak diru-sarrerak bermatzeko errentaren onuradunei bizikidetz-unitate bera osatzen ez duten pertsonen eragin diezaieketen gertakariak jakinaraz ditzaten exijitzeak lege-oinarririk ez duen betebeharrak berria sortzea dakar.

¹ Arartekoaren 2017R-2126-16 Ebazpena, 2017ko maiatzaren 9koa [Linean eskuragarri: http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4262_1.pdf] eta Arartekoaren 2016R-661-16 Ebazpena, 2016ko ekainaren 27koa [Linean eskuragarri: http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_3973_1.pdf]



Horri lotuta, Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari jakinarazten dio Gizarteratzeko eta Diru-Sarrerak Bermatzeko Legeak ez duela ezartzen diru-sarrerak bermatzeko errentaren/etxebizitzarako prestazio osagarriaren titularrek jakinarazi behar dituztenik bizikidetzaren unitatearen osaeraren kontrol-esparrutik at dauden inguruabarrak.

Aitzitik, kasu honetan, Lanbidek erabaki zuen, bi prestazioak eteteaz gain, etxebizitzarako prestazio osagarriari zegozkion zenbatekoak erreklamatzeari, kexagilearen jardun-eremutik at zegoen jarduketa bat zela tarteko.

2. Berrikuspen-espeditan, kexagileak alegatu zuen ez zekiela pertsona bat etxebizitzaren udal-eroldan izena emanda zegoenik, eta Gasteizko Udalari eskatu zion hura erroldatzeko nork eskatu zuen adierazteko, udal horrek eman baitzuen erroldatzeko baimena. Gasteizko Udalak kexagilearen eskaerari erantzun zion, esanez ZZk, zeinek etxebizitzako logela bat hartua baitzuen azpierreant, eskatu zuela udal-eroldan beste pertsona horren izena emateko.

7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 15. eta 18. artikuluetan zehazten du zein den erroldatzeari aplikatzekoa den araubide juridikoa. Idazkariordetzaren 2015eko martxoaren 16ko ebazpenak, Estatistikako Institutu Nazionalaren Presidentearen eta Autonomia Erkidegoen eta Toki-Erakundeen Eskumenen Koordinazioaren Zuzendaritza Orokorraren 2015eko urtarrilaren 30eko ebazpena argitaratu zuenak, udal-erolda kudeatzeko jarraibide teknikoak ematen dizkie udalei. 3. atalean, kasu bereziak arautzen ditu, hala nola beste pertsona batzuk erroldatuta dauden etxebizitzan erroldatzea:

"Cuando un ciudadano solicite su alta en un domicilio en el que ya consten empadronadas otras personas, en lugar de solicitarle que aporte el documento que justifique su ocupación de la vivienda, se le deberá exigir la autorización por escrito de una persona mayor de edad que figure empadronada en ese domicilio. La persona que autorice deberá disponer de algún título acreditativo de la posesión efectiva de la vivienda (propiedad, alquiler...) a nombre de la misma".

Erroldatzeari buruzko araubide juridikoaren arabera, badago pertsona bat etxebizitza batean erroldatzea, han bizi direnek eta etxebizitzaren jabeak horren berri izan gabe.

Kexagileak entzunaldi-izapidean eta berraztertzearen errekurtsoan alegatu zuen ez zekiela pertsona hori erroldatzeko eskaera egin zenik, eta adierazi zuen apierrentariari esan ziola etxebizitza utzi behar zuela informazio hori ezkutatzeari.





Gainera, Gasteizko Udalaren idazkia aurkeztuta egiaztatu du azpierrentariak egin zuela udal-erroldan pertsona horren izena emateko eskera.

3. Arartekoaren iritziz, Lanbidek, diru-sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea eten eta ordaindutako prestazioak erreklamatu aurretik, beharrezko jarduketak egin behar zituen jakiteko nork eskatu zuen udal-erroldan pertsona horren izena emateko.

Herritarrak bizi diren udalerriko udalak du horien izena udal-erroldan emateko eskumena, eta, beraz, beharrezkotzat jotzen bada, txostena bidaltzeko eska dakioke, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 79. artikulua arabera, argudiatuz jakin nahi dela nork eskatu duen pertsona bat erroldatzeko. Horrela, jakin daiteke nork egin duen eskaera, eta ondoriozta daiteke diru-sarrerak bermatzeko errentaren/etxebizitzarako prestazio osagarriaren titularrak edo bere bizikidetzaren-unitateko kideren batek ez ote dituen betebeharrak bete.

4. Azkenik, Arartekoak azpimarratu du etxebizitzarako prestazio osagarria itzultzeko betebeharra ezartzeko arrazoia, hau da, *“la imposibilidad de determinar el gasto de PCV desde septiembre de 2016 por empadronar a una persona en el domicilio sin comunicar, y no poder determinar con exactitud las personas que residían con contratos de subarriendos y el importe del ingreso correspondiente a los mismos”*, (hitzez hitz jaso dugu), ez datorrela bat esandakoarekin; izan ere, adierazitakoaz gain, etxebizitza horretan zeuden azpierrentamendu-kontratuak ez ziren aldatu. Horrez gain, Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko Dekretuaren (147/2010, maiatzaren 25ekoa) 21.1.e) artikulua arabera, honako diru-sarrera hauek ez dira aintzat hartu behar: *“Azpierrentamendu-kontratu bidez jasotako diru-kopuruak, indarrean dagoen legeriari jarraiki, betiere azpierrentamendu bidez jasotako diru-kopuru baturak etxebizitzaren alokairua dela-eta ordaindu beharreko zenbatekoa gainditzen ez badu”*.

Hizpide dugun zorra, hain zuzen ere, titularrak —diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko betekizunak betetzen ez zituela jakinik— prestazio hori eskuratzeko edo hari eusteko egin zituen jarduketek eragin zutelakoan interesdunari kuota finkoa ukatu dion ebazpenari dagokionez, ebazpen honetan argudiatu dugunez, diru-sarrerak bermatzeko errentaren/etxebizitzarako prestazio osagarriaren titularrak ez zekien udal-erroldan beste pertsona baten izena emateko eskatu zenik.

5. Horrenbestez, Arartekoaren ustez, Lanbidek, jakin zuenean diru-sarrerak bermatzeko errentaren/etxebizitzarako prestazio osagarriaren titularraren





etxebizitzan pertsona bat erroldatuta zegoela, eta egitate hori ez zela jakinarazi Lanbideren bulegoan, beharrezkoak ziren egiaztapenak egin behar zituen, jakiteko nork eskatu zuen udal-erroldan pertsona horren izena emateko, modu sinesgarrian zehazteko nork ez zuen bete maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 12.1.f) artikuluan ezarritako betebeharra.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak xedatzen du frogaldia irekiko dela eta ebazpena emateko beharrezkoak diren txostenak eskatuko direla (IV. kapitulua, *Prozeduraren instrukzioa*). Kontuan izan, instrukzioan zehar, edo administrazio-prozedura baten edozein izapidetan, garrantzitsuena dela benetako egia biltzea, eta, hortaz, jarduketan helburuak hura argitzea izan behar duela; egitateak benetan jazo direla jakiteak bakarrik ekarriko du eskubidea etetea eta jasotako prestazioak itzultzeko betebeharra ezartzea.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen dio, azaldutako aurrekariak aintzat hartuta, berriz azter dezala herritar horri diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea eten zion ebazpena.

Hortaz, egiaztatu denez ez zela prestazioa eteteko arrazoirik egon, betebeharrak guztiak bete zirelako, ondorerik gabe utz dezala Lanbideko zuzendari nagusiaren ebazpena, interesdunari 1.750 euro itzultzeko betebeharra ezarri ziona.

